

6. Bezeroekiko harremanak

INKLUNETek bezeroekin harreman iraunkor, inklusibo eta pertsonalizatua ezartzen du, erabiltzaile berriak erakartzeko, mantentzeko eta komunitate seguru eta aktibo bat eraikitzeke helburuarekin. Harreman-eredu hau negozio ereduan integratuta dago, eta diru sarrera jasagarriak sortzea ahalbidetzen du.

Bezero berriak erakartzeko, INKLUNETek komunikazio kanal irisgarriak erabiltzen ditu, hala nola webgunea eta sare sozialak, eta aliantza estrategikoak ezartzen ditu fundazioekin, hezkuntza zentroekin eta teknologia enprekin. Horrez gain, komunitate inklusiboaren balioa eta segurtasuna dira proiektuaren erakargarritasun nagusiak.

Bezeroak mantentzeko eta haien esperientzia hobetzeko, laguntza pertsonalizatua eskaintzen da posta elektronikoaren eta bideokonferentzien bidez, baita autozerbitzuko plataforma bat ere, erabiltzaileek beren kontuak kudeatu eta edukiak partekatu ahal izateko. Era berean, komunitate eta foro seguruak sustatzen dira, erabiltzaileen arteko elkarlana eta laguntza indartzeko.

Azkenik, bezeroekiko harremana negozio ereduarekin estuki lotuta dago, harpidetzen eta zerbitzu profesionalen bidez(aholkularitza) diru sarrera egonkorak sortuz, eta crowdfunding edo dohaintzen bidez komunitatearen inplikazioa eta proiektuaren garapen jarraitua bultzatuz.

1. Baliabide nagusia

- Irisgarritasunean adituak diren garatzaile teknikoak.
- Zeinu Hizkuntza eta azpтитuluetan adituak.
- Segurtasun eta datu babeseko zerbitzuak.
- Komunitatearen moderazio eta kudeaketa taldea.
- Aniztasun funtzionaleko elkarteekin lankidetzak.

2. Jarduera nagusiak

- Aplikazio irisgarriaren diseinua eta garapena.

- Eduki hezitzaile eta inklusiboen sorrera.
- Irisgarritasun digitalaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak.
- Plataformaren mantenua eta eguneraketa.
- Foroen moderazioa eta komunitatearen dinamizazioa.
- Erabiltzaileentzako prestakuntza eta laguntza.

3. Kostu-egitura

- Garapen teknologikoa (aplikazioa, webgunea, zerbitzariak).
- Langile teknikoak eta laguntza-talde irisgarria.
- Eduki bisual eta bideoen ekoizpena (azpтитuluak, zeinu-hizkuntza).
- Komunikazio eta marketin sozialeko kanpainak.
- Mantenua, segurtasuna eta eguneraketak.
- Kudeaketa eta lege-gastuak.

Helburua

Irisgarritasunean eta errespetuan oinarritutako sare sozial sortzea, aniztasun funtzionala duten pertsonak protagonista bihurtuz, gizarte enpatikoago, konektatuago eta justuago baterantz aurrera eginez.





BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: Lucia ia